

LIBURU ARGITALDARIEN INGURUAN

Juan San Martín

Gerraondoko liburugintza, zenbait dotrina edo eliz-liburuz aparte, literatur lana deitzeko eraz, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu*, *euskal poema*-rekin hasten da, 1949. urtean.

Handik laster, 1950ean argitaratu zen Orixe-ren *Euskaldunak* poema handia. 1935erako idatzirik zuena nonbait, baina gerragatik argitaratzerik izan etzuen.

Sail edo kolezio berezi batekin liburugintzari lehen ekin ziona Zarauzko Itxaropena argitaldaria izan zen, «Kuliska sorta»-rekin 1952an.

Liburu sailen ekintzari, Itxaropenaren ondorean, Auspoa Liburutegiak heldu zion, bertso bildumazko liburuz eta literatura arruntez, 1961an. Hau, Aita Zabala-ren ekintza izan zen.

Zenbait urteren buruan Itxaropenako «Kuliska sorta» eta «Auspoa» izango ziren euskal liburugintzan ari ziren argitaldari bakarrak, han hemenka beste zenbait liburu solte irtetzez aparte, bi hoiiek zuten sail berezi bana kolezio bezala jarraituaz. Beste batzuk ere hasi ziren, baina laster porrot eginaz suntsituta gelditu ziren.

Ondoreko ekintzaz, *Jakin* hasi zen 1965ean, izen bereko aldizkariaren inguru, baina egiazko sail bereziarekin 1971tik hasi zen.

Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. delakoa, 1969an hasi zen erdarazkoez gainera euskarazkoak ere argitaratzen; baina azken urteotan motelduaz joan da, eta gainera, atera dituenak euskara-erdaraz atera ditu. Auñamendi Editorialak ere, erdarazko sailaren inguruan euskarazkoak ere ematen ditu, euskara-erdaraz; geroago eta maizago gainera.

Lur Editorialak ekintza berri bati eman zion, gizarte auzizko liburugintzari indar berezia emanez, 1969tik 1974ra arte.

1971.ean El Mensajero argitaletxearen babespean, Etor hasi zen urtean hamar liburu argitaratuaz. 1973an etendura ezagutu zuen eta, lehengo bidetik, jarraitu zuena Gero izenezkoa izan zen gazte-txoentzat Kimu izenez sail berri bat sortuz eta batzaz beste urtero ha-

mar ale atereaz. Baina geroago ta motelago ari da. Berezkuntza hartatik Etor izenez jarraituko zuenak, beste erako bide bat hartuko zuen, tituluak urrituaz baina liburu handiagoetara joaz.

Kardaberaz bilduma 1971tik. Idatz izenekoa Iruñan 1975etik. Kriselu, Donostian 1975tik urteko hamar hamabi liburu argitaratuaz. Eta sortu berri da Durangon Leopoldo Zugaza izenekoa.

Baina beste zenbait argitaldari dira noizbehinka liburuak ateratzen dituztenak. Denak aipatzera luzaz joango ginake eta berezienak soilik aipatuko ditugu: Ikas Baionan 1965 ingurutik, Edili Donostian urte beretik. Eskila Beloken, Cinsa Bilbon, Hegosa Donostian. Eta elebitara argitaratzen dituztenak: Ed. Auñamendi, La Gran Enciclopedia Vasca, Sociedad de Ediciones y Publicaciones, S. A.

Horiez gainera, zenbait Aurrezki Kutxak ere euskarazko liburuak argitaratzen dituzte, noizik-behinean. Baita beste honako argitaldari hauek ere: Buenos Aires-ko Ekin-ek, Baionako Editions Gure Herria, Arantzazu Argitaldariak, Editions Herria eta Donostiako Txertoak.

Editorialetatik aparte egile asko dira liburuak beren kontura ateratzen dituztenak, gero zabalkundea hontarako dauden etxe espezializaturen bati emateko edo zuzenean berek egiteko.

Gaztetxoen eta haurren literaturaz gauzarik berezienak soilik aipatuko ditugu: Timun Mas, S. A. argitaldariak urrats handia eman zuen «Margo ederdun Enziklopedia» argitaratzeaz, 1968tik 1971ra bitartean. Ondorean Walt Disney-ren Gauza Harrigarriak enziklopedia, 1971tik 1972ra bitartean. Hergé-ren «Tin-tin», hiru tomotan 1972an.

Eta geroztik hainbat itzulpen eta etxeko idazleengandikoak sortu direnez Iker, Gero, Gordailu argitaldariak egin digute liburu ederrik, bai irakurgai bezala eta bai E. G. B.-rako liburuz. Ikastolak, hauei esker, lortu dute eskuartean behar beharrezko zuten material didaktikoa.

Euskarazko liburugintzaren abiadura honela etorri zaigu 1963garren urtetik igazko urtera arte (otoi: kontu honetan hemen ez ditugu sartzen ikastoletarako liburu didaktikoak, ez liturgi liburuak eta ezta ere euskara irakaskintzazkoak, baizik literaturaren ingurukoak, itzulpen eta birargitaratzeak barne direla). Hara gure kontu hau, urtez urte jarria:

1963,	25	1970,	55
1964,	22	1971,	56
1965,	33	1972,	57
1966,	37	1973,	56
1967,	39	1974,	51
1968,	40	1975,	56
1969,	50		

Urte batzuetan, argitaldari berriak sortzeaz, gorakada handiak nabari dira, batez ere 1965en 33ra igotzen da euskal liburugintza, ordutik poliki poliki goraka zetorren eta 1969an beste saltu bat 50era igoz, baina 1970etik apenaz mugitu da eta 55/56 bitartean ari da.

Baina esan beharra dago azken bi urte hauetan E. G. B.-rako liburuz eta haur eta gaztetxoentzakoak ugaritu direla eta hoiak ez ditugu sartu, guziak biltzea nekegarri zaigulako.

Euskaltzaleok ohituak gaude ekintza latzetako ariketaz, ohi-tuak egungo historiak berezko korrontaren indarrez bultzarazten gaituenaren giroaren kontra ihardutzean ere eta ez dugu espero datozen iraganak baino askoz hobeak izango direnik. Abertzaletasuna indartuko zaigu, baina euskerarik gabeko abertzaletasuna antzua izanen da.

Orainarte, libertateruntz abiatzeaz, politika ekintzak bizkortu diren neurrian, euskarazko literaturgintza moteldu da. 1969. urte ingururitik 1974.era, euskal literaturak abiadura azkarragoa zekarren; bertako gizarte arazoez, euskeraz erdaraz baino liburu interesgarrigoak agertu ziren, bertan eta bertako gaiiez. Egun, politika abiadura handiagoan sartzeaz, Euskal Herriaz gaurko gaietaz edo oraingo arazoez gaztelerara jo du liburu gehiago eta hobeak argitaratzeak. Begien bistan dago hau euskerarentzat arriskugarria dela.

Alde batetik, zenbait euskal idazle politikara sartu da eta beste batzuk, irabaziko badute, erdaraz idaztera jo beharrean aurkitzen dira.

Egungo giroan, panfletoak idaztea eta sloganak erabiltzea da beste joera berri bat. Baina, aurrera egingo badugu, kontuan izan dezagun mila panfleto baino hobe dela poesia bat.

Hala ere, poesiatik soilik ezta bizi gizona, are gutiago euskal idazle bat.

Baina, otoi, herri baten kultura jatorra hizkuntzari itsatsia aurkitzen denez, gure lehenarekin batean gaur egungo ekintzaren dinamika eskaindu beharra dugu gure hizkuntza dakitenek eta ez dakite-

Hala ere, poesiatik soilik ezta bizi gizona, are gutiago euskal idazle bat.

Baina, otoi, herri baten kultura jatorra hizkuntzari itsatsia aurkitzen denez, gure lehenarekin batean gaur egungo ekintzaren dinamika eskaindu beharra dugu gure hizkuntza dakitenek eta ez dakitenek hontaz arduratuko badira. Bere barne bizitzaz harremanezko baliorik ez duen hizkuntza ahula inork ez du nahi. Gizartea hizkuntzaz interesatuko bada, lehena eta oraina elkarri loturik eta norahikoa eskaini beharra dugu idazleok, baina gure egoera hontatik etorkizunera begira lantzeko ezta aski idazleen ekintza soila, argitaldariai hontan lagundu beharra dute, baina batez ere erakunde politikoek.

Irakurlegoa gehitu beharrean gaude liburuaren salmenta haziko bada, baina biok dute zer ikusirik eskaintzen den literaturaren kalitatearekin, eta kalitatea lortzea bera idazlearen irabazpideekin. Eta gurpil zoro hontatik irtengo bagara, argitaldaria, idazle eta gainerako zenbait ekintza kontuan harturik plangintza serio bat burutzearen premia larrian gaude. Elkarren artean estudiatu eta landu beharrezkoa iduritzen zaigu. Horrez gainera, politikazko erakunde berri ofizialen laguntza ere lortzerik balitz, hobe. Guziak beharko ditu gure hizkuntzak froga gogor hontatik aurrera irtengo bada. Telebistatik asko espero du euskaldun herriak, baina euskarazko TV onik ezta izango literatura lantzen ez bada.

Egoera hau ikusirik, gure argitaldariantzat euskarazko liburuak irabazpiderik ez dutela ikusirik, hala ere, euskal idazleen elkarte baten premia agertuko genuke, idazleen egoera aztertu eta bideratuaz ekintzak onera eroango dituen; baina, era berean, argitaratzaileekin harreman eta egile eskubideak markatu.

Ondoko urteetan zuhur jokatzeko ez badugu, euskarazko literaturak etorkizun iluna izango du. Eta, hau, helburu egoki batera begira jartzea, idazleen haina edo gehiago, liburu argitaldarien eskuetan dago.

1979ko urtarrilaren 25ean. Donostiako E. U. T. G.-en eratu zen mahainjuran irakurria. (Euskal Kultur IIIgn Ikastaroa, Euskal Literatura - Linguistikak, 1978-1979 zelakoaren barnean).